**EZTABAIDA: ZER IRITZI DAUKAZU KIROLETAN TITULU BARIK ENTRENATZEARI BURUZ? /7**

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2002ko apirilaren 26a • III. urtea • 62. zenbakia • DOAN BAN



**BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA**




**Goienka2a**
Guraso Eskolak antolatu dituzte hainbat herritan

**TOMASA ZABALETA**
*"Gizarte sektore aktibo izatera pasatu behar gara zaharrok"* /8-9

**KIROLA**
Oñatiko Aloña Mendiko eskubaloi taldea, igoera fasean /10



ENEKO AZKARATE

## Debagoiendarrak Kantu Txapelketako finalean

Bihar, zapatua, jokatuko da Bergarako Novedades aretoan, 19:00etatik aurrera, Euskal Kantu Txapelketako finala. Gure ibarreko hainbat talde, bikote eta bakarlari aritu dira lehian txapelketan, eta finalean ere izango dugu ordezkaritza: Bergarako Argiñe Agirrezabal, Maitane eta Saioa, eta Bergarakuak (argazkian); eta Arrasateko Xarma taldea. Zorte on, denoi!

XIBEROA GARATZEN EKIMENA AURKEZTEN ARI DIRA DEBAGOIENEAN

# Zuberoari laguntzeko, milioi bat euro

Debagoienak Iparraldeko anaia zuberotarrekin bat egin gura du. Xiberoa Garatzen ekimena jarri dute abian zuberotarrek, eta haiekin lankidetzan, Euskal Herri osoko beste hainbat lagun dabiltza, tartean, debagoiendarrak. Ekimenaren aurkezpena egiten ari dira egunotan Debagoienean: joan den astean Bergaran egin zuten, eta oraingo astean, Aretxabaletan.

Zuberoako ekonomiaren egoera ez da behar bezain ona azken urteotan. Ekonomia arazoak larriak badira ere, beste arazo batzuk ere baditu Zuberoak: mende honetan, populazioaren erdia galdu du Zuberoak, eta euskararen transmisioa ere arrisku larrian dago.

Zuberotarrekin bat, *Auzolanean* izeneko kanpaina abiarazi du Udalbiltzak, eta Euskal Herri osoan ezagutarazten ari dira. Eta horretan dabiltza Debagoieneko hainbat plataforma. **/3**

**OÑATI**

## Manifestazioa egin dute San Martin egoitzako langileek

Dagoeneko 12 egun daramatzate amaiera jakinik gabeko greban Oñatiko San Martin zaharren egoitzako langileek. Greba egiteaz gain, beste hainbat protesta ekitaldi ere egin dituzte. Eguaztenean, manifestazio jendetsua egin zuten Oñatin. **/4**

## Oinezkoendako zubia ipini dute Arrasaten, Laubide eta etxe berriak lotzeko

Martitzenean hasi ziren zubia ipintzen, Cerrajerako etxebizitzen inguruko urbanizazio lanen barruan. Izan ere, Laubideko Udal Aparkalekua eta Cerrajerako etxebizitzak lotzeko ipini dute oinezkoendako zubi hori. Martitzenean bertan, zubiaren oinarria ipini zuten, garabi indartsu baten laguntzarekin eta jendearen ikusminaren aurrean. Pare bat ordu jardun zuten horretan. Gero, eguaztenean, zubiaren goiko aldea ipintzen hasi ziren. Zazpi tona pisatzen du eta 18,40 metro luze eta hiru metro zabal da. **/5**

**BERGARA**

## Bergarako kale garbitzaileak greban dira astelehenetik

Lan baldintzak hobetzeko amaiera jakinik gabeko greba hasi zuten astelehenean Bergarako kale garbitzaileek. Bi urterako lan hitzarmena sinatzea, soldata hobetzea eta egun gutxiago lan egitea eskatzen dute langileek. Adostu dituzten gutxieneko zerbitzuak betetzen ari dira Cespako langileak. **/4**

SPORTLAND
FORUM SHOPS
KIROLA ZEURE ESKURA
www.forumsport.com
Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

HERRIZ HERRI/4-5 • IRITZIA/6-7 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21


zuazola-larraña
oñatiko b.h. institutua
IKASLAN
BiHe
GOIESKOLA
2002-2003 AURREMATRIKULAZIOA • Maiatzak 2-10
BATXILERGOAK
• Teknologikoa
• Natur eta Osasun Zientziak
• Giza eta Gizarte Zientziak
HEZIKETA ZIKLOAK
• Mekanizazioa
• Makinen mantenua
• Gorputz eta Kirol-ekintzen Gidaritza
• Gizarte eta Kultur Animazioa (goi maila)
HITZALDI INFORMATIBOA ETA ATE IREKIAK:
Apirilak 29, Larrañan, arratsaldeko 18:30etan.
Elkarrizketa pertsonalerako: Harreman telefonoa: 943 78 21 50
943 78 21 50 • 943 78 12 68
www.onati.net


Ikusi baino gehiago, probatu nahiko duzu. Ez ala?
Passat
URTEBETETZEA
25
Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE
Tel.: 943 71 18 70 · Faxa: 943 71 18 71

# Xiberoa

## Helburua: Zuberoari laguntzeko milioi bat euro batzea

LEIRE KORTABARRIA

Debagoienak Iparraldeko anaia zuberotarrekin bat egin gura du. Xiberoa Garatzen ekimena jarri dute abian zuberotarrek, eta haiekin lankidetzan, Euskal Herri osoko beste hainbat lagun dabiltza, tartean, debagoiendarrak. Ekimenaren aurkezpena egiten ari dira egunotan Debagoienean: joan den astean Bergaran egin zuten, eta oraingo astean, Aretxabaletan.

**MILIOI BAT EURO**

Zuberoako ekonomiaren egoera ez da behar bezain ona azken urteotan. Zapatagintzaren sektoreak —sasoi baten indar handia zuenak— gainbehera larria izan du azken bi hamarkadotan. Hori gutxi balitz, abeltzaintza eta gaztagintza ere krisian daude.

Ekonomia arazoak larriak badira ere, beste arazo batzuk ere baditu Zuberoak: mende honetan, populazioaren erdia galdu du Zuberoak, eta euskararen transmisioa arrisku larrian dago.

Baina zuberotarrak ez dira erraz kikiltzekoak; eurek dioten moduan, euren izaerari eta lurraldeari atxikimendu handia diote, eta zerbait egitea erabaki zuten. Zuberoako 35 udalerriren elkargoak Xiberoa 2010 egitasmoa prestatu zuen, Zuberoaren biziberritzea gauzatzeko. Euren xedea da Euskal Herrian milioi bat euro batzea, Xiberoa 2010 proiektua egi bihurtzeko.

**INTERES HANDIA**

*Zuberotarrekin bat, auzolanean* izeneko kanpaina abiarazi du Udalbiltzak, eta Euskal Herri osoan ezagutarazten ari da. Eta horretan dabiltza Debagoieneko hainbat plataforma. Momentuz, Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabaletan aurkeztu dituzte ekimenak, eta beste herri batzuetan ere interes handia agertu dute. Euren xedea ez da bakarrik dirua biltzea, baizik eta, eurek dioten bezala, "jendea sentsibilizatzea".




AMAGOIA LASAGABASTER

**Zuberoak bizi duen egoera larriaren berri ematen ari dira Debagoieneko hainbat plataforma.**

**JAGOBA MANTEROLA** / ZUBEROAKO ODACE ELKARTEKO ZUZENDARIA

## *"Krisi larria jasan genuen, baina sektore berriak sortu dira"*

**Xiberoa Garatzen egitasmoaren barne, Mondragon Unibertsitateko Humanitate Fakultateak hitzaldi bat antolatu zuen joan den eguenean. Jagoba Manterola zuberotarra izan zen hizlarietako bat. Lurralde horren ekonomia garapenaren gainean egin zuen berba.**



**Zer da ODACE elkartea?**

Zuberoan orain dela sei urte sortutako talde bat da, 1995ean, beraz. Zuberoako ekonomia sustatzea du helburu. Elkarteak hemengo enpresekin egiten du lan, hurbiltasunetik. Sektore guztietako enpresekin dugu harremana: industria, zerbitzuak, merkataritza... Horrez gain, sor daitezkeen ekonomia eta enpresa proiektu berriak sustatzen eta laguntzen ditu ODACEk.

**Zuberoako ekonomiaz egin zenuen berba Eskoriatzan. Zein da zure diagnosia?**

Zuberoaren ekonomia bizitza zapatagintzaren sektoreak markatu izan du luzaroan; izan ere, aspalditik espartinak egiten ziren Zuberoan. Orain dela 20-25 bat urte, krisi larri bat izan zen; orain dela 25 urte, zapatagintzan bi mila bat lanpostu zegoen, eta orain, 250 baino ez dira geratzen. Hori alde batetik; baina, bestetik, sektore berriak sortu dira, hots, mekanikan, kautxuaren lanketan, nekazaritzan, agroelikaduran, eta abar. Industria horretan, gaur egun, mila bat lanpostu berri dago. Labur esateko, ekonomia krisi larri eta oso eragin azkarrekoa jasan genuen, baina sektore berriak sortu dira.

**Laguntza publiko berezirik jasotzen du Zuberoak bere ekonomia berpizteko?**

Bai. Zuberotarrok elkarrekin lan egiten ari gara ekonomia altxatzeko, eta hamar urterako Xiberoa 2010 izeneko proiektua abiarazi berri da. Horren helburua da seiehun bat lanpostu berri sortzea. Egitasmo hori zuberotarrok sortua da, baina Frantziako, Akitaniako eta Pirinioetako departamenduko gobernuen laguntzak jasotzen ari gara. Gobernu horiek konturatu dira Zuberoan badagoela lan egiteko eta gure ekonomia aurrera ateratzeko borondatea, eta inplikatu egin dira.

**Sarritan entzuten da Euskal Herriko lurraldeen artean, Zuberoa dela ezezagunena...**

Kanpokoen irudia da Zuberoa lurralde txikia eta laborantzan oinarritutakoa dela; ez dute ikusten industria ere badugula, eta batez ere, ez dute ikusten gure aberastasun handiena zuberotarrok elkarrekin lan egiteko eta helburu bati atxikitzeko dugun gaitasuna dela. Neuk horixe ezagutarazi gurako nuke.

BIDEAK

### Laguntzak helarazteko hainbat modu daude

Diru bilketa Euskal Herri osora hedatu gura dute Udalbiltzak eta, oro har, zuberotarrek. Ekarpenak banaka, binaka edo taldeka egin daitezke, eta gutxieneko diru kopurua 250 euro da. Udalbiltzak hainbat bide eskaintzen ditu laguntza horiek helarazteko. Esate baterako, *www.udalbiltza.net* webgunean duzue horretarako aukera, edo 902 33 88 66 edo 0559 46 13 89 zenbakietara deituta. Herrietako plataformek informatuko zaituztete.

LANKIDETZA OPAROA

### Finantziazioa baino helburu zabalagoak

Dirulaguntzak lortzea helburu garrantzitsuenetariko bat da baina ez bakarra. Helburu nagusiena da Zuberoaren egoera gizarteari ezagutzera ematea, auzolanak bultzatzea, eta elkatrukea sustatzea. Horretarako, hainbat bide erabiltzen ari dira debagoiendarrak: elastikoak banatu, hitzaldiak egin... Debagoieneko enpresak ere sentsibilizatu nahi dituzte Zuberoak dituen arazoak konpontzen lagun dezaten.

GARAPEN FONDOA

### Zuberoa, ekimenaren lehen onuraduna

Zuberoari laguntzeko egitasmo hori ez da ekimen isolatua izango. Udalbiltzak iazko abenduan egindako batzar orokorrean, Euskal Garapen eta Kohesio Fondoa sortu zuen, eta horren lehenengo onuraduna izango da Zuberoa; baina, etorkizunean, beste edozein euskal lurralde edo eskualde bihurtu ahal izango da onuradun. Fondoaren helburua da euskaldunon arteko lankidetza eta harremanen estutzea sustatzea eta lekuan lekuko garapena bultzatzea.

DATU BATZUK

### Populazioa eta ekonomia jarduerak

685,41$km^2$-ko hedadura eta, 1990ean, 14.300 biztanle zituen Zuberoak; Iparraldean gutxien populatutako lurraldea izateaz gain, 1901etik 1990era bitartean, etengabe behera egin du populazioak: batez besteko %31ko gainbehera izan du. Maule-Lextarreko kantoian 1.700 bat lagun zebiltzan industrian, baina Atharratze-Sorholüzen, lehen sektorea da nagusi. Nekazaritza garrantzitsua izan arren, abeltzaintzak izan du pisu handien, batez ere, artaldeenak.




SAIOA OJANGUREN

Oñatiar askok bat egin zuten San Martin egoitzako langileekin eguazteneko manifestazioan.

# Elkarrizketa-mahaia osatu arren, greban dira San Martineko langileak

*Lan hitzarmen propioa egitea proposatu du Zuzendaritza batzordeak*

ENEKO AZKARATE

Dagoeneko 12 egun daramatzate amaiera jakinik gabeko greban Oñatiko San Martin zaharren egoitzako langileek. Orain aplikatzen dieten ostalaritzako hitzarmenaren ordez, Euskadiko Foru eta Toki Administrazioko hitzarmen kolektiboa aintzat hartzea eskatzen dute langileek. Greba egiteaz gain, beste hainbat protesta ekitaldi egin dituzte. Eguaztenean, esaterako, manifestazio jendetsua egin zuten Oñatin. San Martineko langileekin batera, ELA eta LAB sindikatuetako ordezkariak eta langileen familiarteko eta lagunak ere elkartu ziren manifestazioan, hainbat herritarrez gain. ELA eta LABeko ordezkariz osatua dagoen Oñatiko Udaleko enpresa komiteak bat egin du San Martin egoitzako 14 langileen eskariekin.

Bestalde, San Martin egoitzako zuzendaritzak dio langileek eskatzen duten lan-hitzarmena ezin zaiela aplikatu eta langileentzako lan-hitzarmen propioa egitea proposatu du. Zuzendaritzak, Euskal Udalerrien zerbitzu juridikoari galdetu zion bere garaian, ea lan-hitzarmena San Martineko langileei aplikagarria zen edo ez. Eudelek egindako txostenak dio langileei ez dagokiela hitzarmen hori aplikatzea. Horregatik, San Martin egoitzako zuzendaritza batzordeko presidente , Angel Iturbek tarteko erabaki bat hartu eta lan-hitzarmen propioa egitearen alde agertu da. Irtenbidea aurkitze aldera, bi aldeek elkarrizketa-mahaia osatzea erabaki dute.

# Bergarako kale garbitzaileak greban daude, lan baldintza hobeak eskatzeko

*Astelehenean hasi zuten amaiera jakinik gabeko greba Cespako langileek*

E.A.

Lan baldintzak hobetzeko amaiera jakinik gabeko greba hasi zuten astelehenean Bergarako kale garbitzaileek. Bi urterako lan hitzarmena sinatzea, soldata hobetzea eta egun gutxiago lan egitea eskatzen dute langileek. Hain justu ere, aurtengorako 4,5 puntuko igoera eta datorren urterako KPI gehi bi puntu igotzea eskatzen dute, eta zapatuetan jai hartzea. Enpresak, ostera, lau urterako hitzarmena eta aurten soldata 2,6 puntu igotzea proposatu du, eta, 2005. urtean hastea zapatu guztietan jai hartzen.

## BAILARAN LABUR

### Ibarreko Eskola Publikoen Topaketak izango dira datorren martitzenean Elgetan

Goieskolak Eskolen Arteko Topaketak antolatuko ditu datorren martitzen goizean Elgetan. Umeen euskal joko tradizionalak egingo dituzte: txingak, zaku lasterketak, boloak, kanikak... Ibarreko eskola publiko guztietako umeek hartuko dute parte topaketetan, guztira, 187 neska-mutikok. Horrela, ikastetxeetako umeen arteko harremanak bultzatu gura dituzte topaketekin, baita euskal jokoak ezagutaraztea eta kultura ondarearen atal bat berreskuratzea ere. /E.A.

### Manifestaziorako dei egin dute sindikatu guztiek, israeldarren sarraskia salatzeko

Palestina herriari elkartasuna adierazteko, manifestaziorako dei egin dute sindikatuek. Manifestazioa gaur izango da, egubakoitza, Arrasaten, 19:00etan, Portaloitik. ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK, EHNE, EILAS, LSB, Hiru eta EGAS sindikatuek egin dute deia. /E.A.

### Hamalau urteko mutil bat atxilotu dute, Oñatin neska bat bortxatzeagatik

Errekalde eta San Lorentzo auzoak lotzen dituen tunel baten apirilaren 15eko goizean adin txikiko neska bati egindako erasoa dela eta, 14 urteko mutiko bat atxilotu du Ertzaintzak. Atzetik eraso, lurrera bota eta gorputza ukitzen hasi zitzaion mutikoa neskatoari. Neskak, baina, haginkada eman eta ihes egin zuen. /E.A.



### Marka guztiak hautsi zituen 'Oto'-k

Sekulako ikusmina sortu zuen Etor Sarasua elgetarraren erronkak: 26 kiloko butano-bonbona bizkarrean, Elgetatik Intxortara igo eta handik Asentziora, 45 minuturen barruan baietz. Bai horixe! Esan eta egin. 38 minutu eta 37 segundo behar izan zituen ibilbidea egiteko. Eguraldia lagun, jende piloa elkartu zen desafioa gertutik jarraitzeko. GOITBko eta ETBko *Sorginen Laratza* saioko kamerak ere hantxe izan ziren. Elgetako Goibeko elkarteak antolatutako kiniela Fermin Iribarrek asmatu du. 38:05eko denbora egingo zuela iragarri zuen. /E.A.

Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atseden Etxea

Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24

ZURE AMETSETAKO ETXEA!

- Besaulki eta sofa etzangarriak
- Besaulki altxagarriak
- Latexezko edo tempurrezko koltxoi anatomikoak
- Doitasunezko somierrak, elektrikoak eta eskuzkoak.

ARAMAIO

## Sagardogileen Eguna ospatuko dute aramaioarrek domekan

Arabako patroiaren eguna, San Prudentzio, aprobetxatu eta, bigarren urtez, Sagardogileen Eguna ospatuko dute aramaioarrek.

Zapatuan ekingo diote jaiari. Talo ikastaroa izango da, 10:30etik aurrera, herriko plazan. Eta domekan, Txirritola Euskara Elkarteak antolatuta, Sagardogileen Eguna ospatuko dute. Herriko zenbait auzotan egindako hamaika sagardo mota dastatu ahal izango dira 11:30etik aurrera, plazan, jai giro apartan. Eguraldi eskasa egiten badu, berriz, jaia kiroldegian egingo dute. /UBANE MADERA

ANTZUOLA

## Euskal Herriko Naziotasun Agiria tramitatzea eskatu diote Udalari

Antzuolako Bai Euskal Herriari taldeak mozio bat aurkeztu du Udalean, eta udalbatzarrari eskatu EHNA tramitatzeko. Egueneko osoko bilkuran aztertzekoak ziren mozioa. Onartzekotan, edozein herritarrek euskal agiria eskatu ahal izango luke, eta horretarako, eskaera orriak udaletxean eskuragarri egongo lirateke.

Bai Euskal Herriari taldekoen esanetan, "askatasunez eta demokratikoki, Euskal Herriko hiritar izateko nahia eta borondatea azaldu nahi dugu agiri horrekin". /AINTZANE IRIZAR

ELGETA

## Euskalkiaren Eguna antolatuko dute Badihardugu eta Goibeko elkarteek

Bi elkarteok aurreratu digutenez, ekainaren 1ean izango da Euskalkiaren Eguna. Batetik, aste bukaera horretan *Goibekokale* aldizkariak 100 zenbaki beteko dituela eta, hainbat ekintza antolatuko ditu Goibeko kultura elkarteak.

Bestetik, euskalkia lantzen diharduen ibarreko Badihardugu elkarteak batzar orokorra egingo du egun horretan. Berbaldi eta liburu aurkezpenak ere antolatu dituzte. Gauean, Tapia eta Leturiarekin erromeria egongo da, Espaloian. /OXEL EROSTARBE



UBANE MADERA

ARRASATE

## Finlandiako pinu gorriaren egurrarekin egindako oinezkoendako zubia ipini berri dute Arrasaten, Cerrajerako urbanizazio lanen barruan

Arrasatearrek zubia estreinatuko dute laster. Martitzenean hasi ziren zubia ipintzen, Cerrajerako etxebizitzen inguruko urbanizazio lanen barruan. Izan ere, Laubideko Udal Aparkalekua eta Cerrajerako etxebizitzak lotzeko ipini dute oinezkoendako zubi hori. Martitzenean bertan, zubiaren oinarria ipini zuten, garabi indartsu baten laguntzarekin eta jendearen ikusminaren aurrean. Pare bat ordu jardun zuten horretan. Gero, eguaztenean, zubiaren goiko aldea ipintzen hasi ziren. Finlandiako pinu gorriarekin egindako zubia da. Zazpi tona pisatzen du eta 18,40 metro luze eta hiru metro zabal da. Zorua, berriz, teka motako egurrarekin egindakoa da. Adituen esanetan, oso zubi iraunkorra eta gogorra izango da. /UBANE MADERA

OÑATI

# Juan Zubiak idatzitako memoriak liburu baten bilduko ditu Udalak

Horixe erabaki du Gobernu batzordeak. Jose Antonio Azpiazu historialariari eskatu diote lan hori egitea, eta onartu egin du proposamena.

Juan Zubia 1900. urte inguruan jaio zen, eta Atzeko-kalen bizi izan zen urte askoan. Oso gizon berezia eta ezaguna zen herrian, eta hura ibiltzen zen Atzekokaleko jaietan antolatzaile lanetan. Renfe konpainiako ingeniaria izan zen eta, hori dela eta, Gasteizen bizi izan zen.

Bere memoriak idazteko ohitura zuen; koaderno bat hartu eta herriko pasadizo, ohitura eta istorio ugari idazten zituen. Antzinako argazki mordoa ere jaso zuen.

Idatzi, dokumentazio eta argazki horiek guztiak Udalari eman zizkion Jose Guillermo semeak duela urte batzuk. Orduan, Udalak erabaki zuen Juan Zubia zenaren izenean eta Oñatiren alde egindako lanaren truke, dokumentazio guztia aztertu eta liburu baten argitaratzea. Esan bezala, Jose Antonio Azpiazu historialari eta idazleari eskatu dio orain Udalak liburu hori argitaratzea. Azpiazuren esanetan, liburu berezia izango da; orain dela 60-80 urteko Oñatiko bizimoduaren ikuspegi berezia emango dizkigute Juan Zubiaren memoriek, pasadizoek, Oñatiko ohituren gaineko haren idatziek eta bere garaian batu zituen argazkiek. Hilabete batzuk beharko ditu orain Jose Antonio Azpiazuk eskura daukan dokumentazio guztia aztertu eta liburua osatzeko. /AINTZANE IRIZAR

**Zertzelada**

**Juan Zubia oñatiarrak herriko pasadizo, istorio eta ohituren gaineko kontu ugari idatzi zituen; antzinako argazki mordoa ere batu zuen.**

BERGARA

# Dirulaguntzak Gizarte Zerbitzuen arloan ari diren elkarteendako

Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten elkarteendako dirulaguntzak banatzeko oinarriak kaleratu ditu Udalak. 19.989 euro izendatu ditu aurten Udalak laguntza horiendako.

Dirulaguntza horiek jasotzeko ezinbesteko baldintzak dira legalki araututako elkartea izatea, irabazi asmorik gabekoa eta Gizarte Zerbitzuen arloan jardutea. Horrez gain, zerbitzu horiek Bergaran, Debagoienean edo Gipuzkoan garatu beharra dago dirulaguntza jasotzeko

Interesa duten taldeek Udalean egin beharko dituzte eskaerak, maiatzaren 3a baino lehen, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara. /M.B.



ARTXIBOA

**Laguntzen xedea da biztanleei zuzendutako jarduerak finantzatzea.**

ARETXABALETA

## Udalak kulturarako areto berriaren proiektua aurkeztu die kultura taldeei

Udalak kuartel zaharrean egin gura du kulturarekin harremana duten erabilera askotarako aretoa. Hori dela eta, Udalak joan den astean herriko hainbat kultura talderi aurkeztu zien proiektua. Talde horiek, areto berriaren proiektuari oniritzia emateaz gainera, Udaleko alderdi guztiei eskatu diete proiektua lehenbailehen egiteko pausoak eman ditzaten.

Aretoa egiteko, aurretik aurrekontuak onartu beharko dituzte. Baina adostasun falta dela eta, ez dituzte oraindik osoko bilkuran aurkeztu./A.L.

ESKORIATZA

## Umorea eta aldaketak nagusi Eskoriatzan Liburuaren Egunean

Literatura protagonista izan den astean, era guztiz ezberdinean ospatu dute Liburuaren Eguna eskoriatzarrek. HUHEZIn umore giroa izan da nagusi astean barrena, Arantxa Iturbe, Kike Amunarriz, Asisko Urmeneta eta beste hainbaten bisitarekin.

Udal Liburutegian, ostera, aldaketak izan dira. Joan den aste arte liburutegiko arduradun lanak bete dituen Jasone Erostarbek agur esan die eskoriatzarrei. Liburutegia, ordea, ez dute itxi. Haren ordez Oskar Loiti arrasatearra hasi da lanean. /MIRARI ALTUBE

LEINTZ GATZAGA

## Elorrioko 52 urteko gizakume bat hil da Leintz Gatzagan, moto-istripuan

Eguaztenean (hilak 24), istripua gertatu zen Leintz Gatzagan. Elorrioko gizakume bat hil zen istripuan, gidatzen zihoan motoa bidetik atera zen-eta.

Moto gidariak zauri larriak izan zituen istripuaren ondorioz. Arrasateko Ospitalera eraman zuten, eta han, hil egin zen. Istripua arratsaldeko bostak inguruan gertatu zen, GI-627 errepidean, Arlaban gainean, Ertzaintzaren prentsa bulegoak azaldu digunez. Moto gidaria, J.F.U.A., 52 urteko elorriarra zen. /AINTZANE GARDOKI

## *Zabalik*



BEATRIZ
ZABALONDO

### *Ondo bidean*

**Goi politika eta horrelakoak ez ditut ulertzen nik. Izen-abizena duen jendea nola bizi den eta zer lan egin duen ikusita ateratzen ditut nik kontuak. Gure lanaren onuren zati bat geure bizitzan disfrutatzeko dugu, baina ondorengoei utziko diegu guk egindakoaren beste zati bat, egin ez duguna eta hala moduz egindakoa ere utziko baitiegu.**

**Esate baterako, ez dut ulertzen herrietako jaietan edo sagardotegi garaian "zirkuituko" herrietan gauez antolatzen diren txiza festak; ez diot zentzurik aurkitzen erabilera publikoko tokietan sarri aurkitzen den utzikeriari, "hau nirea ere baduk/nire zergekin ordainduta zagok" esanda edozer zikindu eta apurtzeko eskubidea irabazita dugulakoan; tripako mina eragiten dit baita ere gure herriko, Elgetako, sarrera-sarreran oraindik bizilagunak dituen etxetxo zuri betiko bati aurrealdean egin dioten etxe-munstro batek — auzotarrak osorik irenstera bidalitako erraldoia dirudi.**

**Gure aurrekoek doitasunezko tresneria askorik barik egin zituzten lan fin askoak. Premia larria izango zuten, akaso, baina bai gauzak ondo egiteko harrotasuna ere. Gauzak berez ez direla egiten erakutsi ziguten guri, gora begira egonda jai dagoela eta ondo egindakoa betiko dagoela ondo.**

**Ondo bidean konturatu beharko ginateke txizainero gautarrek kiratsa eta zikina uzten dutela bazterretan; kaleko eserleku, igerilekuko dutxa, eta abar zaintzea erabiltzaileoi dagokigula; herri lanak diseinatzeko ardura luzerako herentzia dela, gauzak ondo egiteko premiaz ohartaraztea herritar guztion eskubidea ez ezik, eginkizuna ere badela.**

**Inork badaki non galdu zaigun gauzak ondo egiteko harrotasuna?**

## *Gutunak*

### San Martin egoitzako langileei elkartasuna

Oñatiko Udaleko ordezkaritza sindikala LAB eta ELA sindikatuen esku dago eta San Martin egoitzako langileak daramatzaten grebaz zera esan nahi dugu:

• Gure babesa eman nahi diegula langileen aldarrikapenei.

• LABek eta ELAk dutela Oñatiko Udaleko ordezkaritza sindikalaren %100a, eta betidanik esan dugula San Martin egoitzako langileek Udaleko langileen baldintza berdinetan egon behar dutela.

• Baldintza berdinak ez direla izan behar plantilako langileendako bakarrik, eta enpresa subkontratatuak desagertu egin behar direla.

• Oso baliogarria dela plantilako langileek lortu duten batasuna euren eskubideen alde borrokatzeko, baina borroka zuzena izan dadin, enpresa subkontratatuen langileekin bat egitea kominigarria dela.

• Dei egiten diegula egoitzako zuzendaritzari eta, batez ere, alkate jaunari, egoitzako presidente den neurrian, elkarrizketa zintzoa bultzatu dezaten, arazoa lehen bait lehen konpon dadin. Gaur egungo egoera zuzendaritzaren jarrera itxiagatik da.

• Lantoki honetako, zein Udalarekin zerikusia duten beste batzuetako langileen baldintzak berdinak izan behar direla.

LAB ETA ELA
Oñati

### Euskararen ofizialtasuna erein

Gaurko honetan, zuengana zuzentzen gara maiatzaren 11n egingo den jendekatearen berri emateko. Giza katea hiru puntu desberdinetatik aterako da, Euskal Herrian eremu administratibo desberdina duten hiru zonaldetatik hain zuzen: Irun, Hendaia eta Endarlatza, gero, giza kate desberdinak puntu baten lotuko direlarik.

Mobilizazio honekin, lurralde zatiketa eta lurralde bakoitzean dauden hizkuntzalege desberdinak salatu nahi ditugu ofizialtasuna aldarrikatzeaz gain. Gaur egungo marko juridikoa gainditzen ez badugu, ezinezkoa izango da euskararentzat ofizialtasun erreala gauzatzea, euskara ez baitago bere lurralde osoan modu berean arautua.

Euskal Autonomi Erkidegoan, euskara gaztelerarekin batera lege aldetik ofizialtzat hartzen bada ere, beti bigarren maila batean gelditzen da. Nafarroan, hizkuntza eskubideak hiru eremu desberdinetan zatiturik daude, zein baino zein kaskarragoak. Iparraldean, euskarak ez dauka hizkuntza eskubiderik.

Hau honela izanik, euskararen etorkizuna kolokan ikusten dugu, eta egoera hau gainditzeko lanean hasiz gero, estatuaren aldetik oztopoak besterik ez ditugu aurkitzen; egoera honen adibide garbiak helduen euskalduntze eta alfabetatzearen aurka hartzen dituzten neurri judizialak dira, gure hizkuntzaren defentsa egiten dugunon kriminalizazioa eta, zer esanik ez, Nafarroan euskararekiko bideratzen ari den hizkuntza-politika baztertzaile eta deuseztatzailea.

Beraz maiatzaren 11n gure hizkuntz eskubideen eta ofizialtasunaren alde egingo den Giza katera etortzera animatzen zaituztegu. Nahi izanez gero, autobusak antolatuko dira eskualdeko herri guztietan.

Herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatu.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Debagoiena

### Laneko Osasunaren Eguna: zure osasuna arriskuan

Gaur, egubakoitza, Laneko Osasunaren Nazioarteko eguna dela-eta, ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuak ordubete greba deitu dute gaurko. Ekintza hau goizeko 11etatik 12etara izan da Euskal Herriko enpresa guztietan. Aukeratutako leloa: "Zure osasuna arriskuan". Laneko Osasunaren Egunez, Euskal Herriko lantokietan osasuna eta segurtasuna zertan den hausnartu nahi genuke. Euskal langileok nekatuta eta haserre gaude.

Batetik, enpresariek 31/95 legea laneko arriskuen prebentzioari dagokionez betetzeko bat ere kezkarik ez dute agertu. Bestalde, instalazioak eta lan-baldintzak hobetzeko inbertsiorik ez dute egin nahi, ez diru, ez langile, ez bitartekoetan. Horretaz gain, EAEko eta Nafarroako administrazioek legea betearazi eta hain garrantzia handiko alorrean benetako aurrerapena egiteko ia ez dute ezer egin, 2001ean laneko istripuetan, 121 langile hil diren arren.

Enpleguaren etengabeko kolokako egoera dela eta, berori da istripu gehienen arrazoia. Beraz, norbere arduraren baitan, enpresari eta administrazioei honako puntuak eskatzen dizkiegu:

1. Lantoki bakoitzean benetako prebentzio plan osoak prestatu eta eska daitezela, besteak beste ergonomia, gai kimikoak eta arrisku psikosozialak kontutan izango dituztenak.

2. Laneko Arriskuen Prebentziorako Legeak bolumena edo tamaina gorabehera enpresa orori eragiten badio ere, betebehar hau enpresa txiki eta ertainetan ia erabat saihesten da; horregatik, prebentzio plan horiei lehenbailehen ekitea ezinbestekoa da.

3. Enpresariei eskatzen diegu osasun arreta espezifikoari buruzko 22. artikulua bete dadin kreditatutako erakundeekin itunak itxi ditzatela, 1996 urteaz gero legeak agintzen baitie hori.

4. Aurretik ere esan genuen moduan, 6/2000 dekretuaren arabera enpresek gaixotasun komunen kontrola mutualitateekin hitzartzearen aurka gaude, eta osasun sistema publiko osoaren aldekoak gara (Osakidetza eta Osasunbidea), osasunaren prebentzioa eta sendatzea, lantokian eta beronetatik kanpo ere bermatze aldera. Enplegua dutenek eta ez dutenek babes berdina izan dezaten.

5. Aitor daitezela lanak eragindako gaixotasun moduan giharretako, buruko, tendoietako gaitzak, hainbat minbizi kasu, etab.

6. Inbertsioen atalean baliabide ekonomikoak bidera daitezela, langileen osasun- eta segurtasun-arazoei behar bezala aurre egin ahal izateko.

7. Negoziazio kolektiboari buruzko gure konpromisoa gai honen inguruko aldarrikapenak sartzean datza. Enpresariek onartu egin beharko lituzkete.

8. Kontratuen behin-behinekotasuna erabat murriztu dadila, eta azpikontratazioen katea nahiz ABLEen bidez langileak uzteko ohitura amai dadila.

9. Herri-administrazioei eskatzen diegu ugazabek legeak betetzen ez dituztenean zerbait egin dezatela, egungo utzikeria konplizean jarraitu ordez.

ELA, LAB, ESK ETA STEE-EILAS
Euskal Herria

## *Olatz eta Patxi*

MIKEL ARROIABE



## *Eztabaida*

Toshack kargutik kendu, eta Roberto Olabe etxekoan jarri du Realeko zuzendaritzak txuri-urdinen talde nagusia lehen mailari eusteko ardura nagusia. Olabe, Zamora eta Masach hirukotea dabil zeregin horretan. Astiazaranek hartutako erabaki horrek, baina, entrenatzaileak haserretu ditu. Zamorak badauka lehen mailako futbol taldeak entrenatzeko behar den txartela. Ez, ordea, Olabek. Zamora da, ofizialki, Realeko entrenatzailea, nahiz eta azken erabakiak Olabek hartzen dituen. Bidezkoa da jokaera hori?

# Ezinbestekoa da titulua edukitzea lehen mailako taldeak entrenatzeko?

## *Titulu barik ez litzateke entrenatu beharko*



ENRIKE NIETO
UDA taldeko entrenatzailea

Nazional mailako entrenatzaile titulua ez duenak ez luke lehen mailako taldeak entrenatzeko aukerarik izan behar. Baina ez dut ukatu nahi, titulurik ez izan arren, lehen mailako taldeak entrenatzeko gaitasuna duenik ez dagoenik, Realeko entrenatzaile Olabe kasu.

Ikasketa batzuk egin direla ziurtatzen du tituluak, hau da, taktika, teknika, psikologia eta beste hainbat arlori buruzko jakinduria jaso dela. Ez hori bakarrik, askok uste dutena baino froga gogorragoak gainditu direla ere ziurtatzen du.

Nazional mailako entrenatzaile titulua ateratzeko ikastaroetan, entrenatzaileen interesak babesteko legeriak dioena errepasatzen da eta argi geratzen da maila bakoitzak titulu bat eskatzen duela eta titulu horiek eskuratzeko dagokien ikastaroak egin behar direla.

Olabek Reala entrenatzeko gaitasuna eta jakinduria badituela uste dut, txuri-urdinen aulkitxoan esertzeko behar den entrenatzaile titulurik ez eduki arren. Lehen mailako jokalari izandakoa da eta, beraz, arlo horretan esperientzia handikoa. Horrez gain, Realaren beheko mailetan entrenatzen jardun du eta horrek ere esperientzia eman dio.

Lehen mailako jokalari izateko aukera izan ez dutenendako ziurtagiria da entrenatzaile titulua. Titulu horrek lehen mailako taldeak entrenatzeko aukera ematen die goreneko mailan jokatu ez dutenei. Aukera hori izango ez balitz, lehen mailako jokalari ohiek bakarrik izango lukete goreneko mailako taldeak entrenatzeko aukera. Juanma Lillok, Victor Fernándezek edo Fernando Vázquezek ez dute lehen mailan jokatu, baina entrenatzaile tituluari esker, lehen mailako taldeak entrenatzeko aukera izan dute.

Lehen mailan entrenatzeko titulu beharrik ez dagoela uste dutenek prestatzaile fisiko edo mediku lanak egiteko ere titulu beharrik ez dagoela edo erizainek medikuen lana betetzeko gaitasuna dutela ere onartu beharko lukete. Era berean, ez lukete oztoporik jarri beharko onartzeko *Operación Triunfo*-koak epaile lanetarako egokiak izan litezkeela eta, partiduaren garrantziaren arabera, poltsikoko telefonoekin igorritako mezuen bitartez aukera litezkeela epaileok.

**"Lehen mailako jokalari izateko aukerarik izan ez dutenendako ziurtagiria da titulua"**

## *Legeak eta arauak betetzeko daude, ezta?*



JUANINA GARAI
Bergara KEko entrenatzailea

Legeak betetzeko daude. Eta kontu horretan araudia garbia da: lehen mailako taldeak entrenatzeko Nazional mailako titulua beharrezkoa da, beste maila batzuetan entrenatzeko dagokion titulua beharrezkoa den moduan. Baina Johan Cruyff-i edo beste entrenatzaile atzerritar batzuei, Nazional mailako titulu barik entrenatzen uzten badiete, zergatik ez diote utzi behar bertako bati, kontuan izanda, gainera, Olabek aitortu duela titulua lehenbailehen ateratzeko asmoa duela?

Bestalde, Zamorak badauka lehen mailako entrenatzaile titulua, beraz, Realaren entrenatzaile-aulkitxoan esertzen den hirukoteak badauka dagokin ziurtagiria. Hortaz, Realak zuzen jokatu du, hirukote horren burua edo bozeramailea titulurik ez duen Olabe dela argi geratu den arren. Horregatik, ulertzekoak dira, era berean, entrenatzaileen elkartearen kexuak ere. Baina esan beharra dago Olabek Nazional mailako entrenatzaile titulurik ez badauka, aukerarik eman ez diotelako, hau da, ez aurten eta ezta iaz ere titulua ateratzeko ikastarorik antolatu ez dutelako dela. Olabek titulua ateratzeko borondatea agertu du, behintzat.

Beste herrialde batzuetan, Holandan, esaterako, izen handiko futbol jokalari izan direnei entrenatzeko diploma, titulua edo dena delakoa ematen diete, onartu egiten dutelako ikastaro beharrik ez dutela, futbolari buruz jakin daitekeen guztia dakitela Cruyff edo Koemann moduko jokalari ohiek.

Baina zer da garrantzitsuagoa, titulua edukitzea edo futbol jokalari ohia izatea? Victor Fernández sekulako entrenatzailea da, hor daude bere lorpenak. Baina zer esperientzia dauka jokalari moduan? Cruyff, ostera, futbolak eman duen jokalari handienetakoa izan da eta entrenatzaile moduan gorenera eroan zuen Bartzelona…, baina ez dauka Nazional mailako titulurik edo, behintzat, ez du ikastarorik egin beharrik izan titulua lortzeko.

Berriz diot, arauak betetzeko daude eta araudiak esaten badu lehen mailako taldeak entrenatzeko titulua beharrezkoa dela eta titulua lortzeko modua ikastaro ofizialak egitea dela, bada, arauak bete egin beharko dira.

**"Baina zer da garrantzitsuagoa, titulua edukitzea edo esperientzia handiko futbolari ohia izatea?"**

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

*Le Pen-i aurre egiteko, egokia da ezkerrak eskumari botoa ematea?*

## *Gora eta Behera*

### LITERATURA ASTEA KURTZEBARRI INSTITUTUAN

Irakurzaletasuna eta liburuarekiko maitasuna bultzatze aldera, literaturari eskainitako astea izan da oraingoa Kurtzebarri Institutuan. Ikasle, irakasle eta gurasoek hartu dute parte eta hainbat idazle ezagun ere izan da. Era askotako jarduerak antolatu dituzte: ipuin kontaketak, irakurketa maratoia… Irudiaren eta teknologia berrien aroan, liburua protagonista.

### EDOZEIN TOKITAN APARKATZEN DUTENAK

Gatzagan ondo zehaztuta dago non aparka daitekeen eta non ez. Baina, ardurabako asko dago, dagokion tokian aparkatu beharrean, arauak errespetatu ez eta taberna edo etxe aurrean aparkatzen dutenak, oinezkoei kalte egin arren.



## *Koplak*

### *Elkoro-Barriola*

Idazteko egonagatik
eskola aldetik makala,
kopla batzuk jarri beharra
daukat zela edo hala.

Bi pilotari dauzkat nik hemen
orain aipatu beharra
bientzat nola izan dudan
maitasunaren sugarra.

Jokatu berri nola ditugun
Elkoro eta Barriola,
ikusi genuen leitzatar hori
oso indartsu dagola.

Elkoro beti saiatu zara
pilota arloko lanian,
orain barkatu sasoikoari
zure gizatasunian.

Galduagatik ez ahal zenuen
nahigaberikan hartuko,
Barriola ere makalduko da
zu beste egin orduko.

Mila zorion Barriolari
Eta berdin Elkorori,
Euskal Herriko jolasa da-eta
gogor jarrai pilotari.

EGOITZ AIZPURU

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# *Tomasa Zabaleta*

GIPUZKOAKO NAGUSIEN KONTSEILUKO PRESIDENTEORDEA

# "Estatuaren gonapean egotetik, gizarte sektore aktibo izatera pasatu behar gara zaharrak, hau da, arazoak konpontzen parte hartu behar dugu"



Erretiratzeko ordua heldu zitzaionean, presente egotea erabaki zuen, eta horretan dabil, jo eta ke. Bergarako San Joxepe erretiratuen elkarteko buru eta Gipuzkoako Nagusien Kontseiluko presidenteorde da. Zahartzaroaren gaineko Munduko batzordean egon da Madrilen. Hango berri eman digu eta erretiratuen gaineko beste hainbat konturen gainean ere jardun du Tomasa Zabaletak (Bergara, 71 urte).

ENEKO AZKARATE

**Zahartzaroaren gaineko Munduko batzordea egin berri dute Madrilen, eta zu zeu ere hantxe egon zara. Mundu osoko zaharrak elkartu zineten hantxe?**

Bai, Errusiakoak izan ezik, munduko beste bazter guztietatik joandakoak batu ginen. Erdiak, Europako Batasunekoak, eta beste erdiak, munduko beste toki batzuetakoak. 2.000 lagun inguru elkartu ginen.

**Arazo berberak ez dituzue, baina, Europako zaharrek eta munduko beste leku batzuetakoek, ezta?**

Horrela da. Guretako arazo direnak garatu gabeko herrialdeetakoendako pribilegioak dira. Esate baterako, gehienak ez dira pentsiodunak, osasun aldetik ere gabezia asko dituzte eta hemengoaren moduko gizarte aurreratuetan dugun gizarte-laguntzarik ez dute herrialde horietan.

**Zer egin dezakegu herrialde horietako zaharrei laguntzeko?**

Madrilgo batzorde horren helburua zen zahartzaroaren egoeraren gaineko hausnarketa egin eta ondorio batzuk ateratzea. Hortaz, garatu gabeko herrialdeetan bizi diren zaharrei laguntzeko diru kutxa bat sortzea erabaki genuen, baina estatuen aldetik ez zen horrelako erabakirik hartu.

**Beste zein hausnarketa azpimarragarri egin zenuten?**

Pertsona helduak erretiratu moduan hartu izan gaituzte orain arte, hau da, lan bizitza amaitutakoan erreserbara pasatuko bagina bezala. Azkenaldian, ostera, beste modu batera ikusten gaituzte zaharrok. Gizartea geroago eta zaharragoa da herrialde aurreratuetan eta estatuak ez gaitu kostu faktore moduan hartzen, baizik eta garapen faktore moduan. Hortaz, zahartzaroa ez da arazo moduan hartzen, gizarte fenomeno moduan baizik. Eta zaharrok gizarte fenomeno berri horren protagonista izan behar gara, zahartzaroaren fenomenoari irtenbideak topatzeko protagonistak. Arazoen konponbidean parte hartu behar dugu zaharrok. Eta horregatik, erakunde publikoetatik bultzatzen dituzten gizarte politikak aldatu egin behar dira. Zelanbait esateko, estatuaren gonapean egotetik, gizarte sektore aktibo izatera pasatu behar gara.

**Emakume zaharraren arazoa ere izan duzue aztergai, ezta?**

Bai, arlo horrek aipamen berezia izan du. Garatu gabeko herrialdeetan, familiaren eta, bereziki, umeen zein zaharren laguntzaile edo zaintzaile papera betetzen du emakumeak. Gizarte Zerbitzuak garatu barik daudenez, emakumeak zerbitzu horien papera betetzen du.

**Gipuzkoako erretiratuok zein ekarpen egin duzue?**

Lau lagunek ordezkatu genuen Gipuzkoako Nagusien Kontseilua. 152 eztabaida mahai antolatu ziren eta guk mahai horietako baten hartu genuen parte. Sei lan-arlo osatu ziren: zahartzea eta parte hartzea; zahartzea eta garapena; zahartzea eta politika publikoak; zahartzea eta eskubideak; zahartzea eta ingurumena; eta zahartzea eta osasuna. Lehenengo lan-mahaian aritu ginen gu eta zaharren kontseiluaren berri eman genuen; hain justu ere, zaharren parte hartzea bultzatzeko organo edo taldea garen neurrian, gure esperientzia kontatze aldera. Gure jardueren eta helburuen berri eman genuen eta zaharren aldeko manifestua aurkeztu genuen.

**Zeintzuk dira, bada, manifestu horren puntu nagusiak?**

Hiru printzipio nagusi jasotzen ditu manifestuak: lehenengoan, adinaren araberako diskriminaziorik eza jasotzen da; bigarrenak gizartearen parte hartzearen aldeko aldarrikapena egiten du; eta hirugarrenean, belaunaldien arteko harremanen printzipioa aipatzen da. Zahartzea eta parte hartzea aztertu zituen mahaiak, gure manifestuak jasotzen dituen hiru printzipioak nabarmendu zituen. Hortaz, oso pozik gaude gure lanak oihartzuna izan duelako.

**Manifestu hori Gipuzkoa osoan barrena landu duzue?**

Bai, Nagusien Kontseilutik bultzatu dugu kanpaina. Lehenengo, udalen babesa lortu dugu, eta horren ondoren, kalez kale ibili gara manifestuaren aldeko atxikimenduak lortu nahian. 12.000 sinadura inguru jaso ditugu Gipuzkoa osoan. Adin guztietako jendeak sinatu du manifestua eta nabarmentzekoa da gazte jendearen aldetik jaso dugun babesa.

**Debagoienean zenbat sinadura jaso dituzue?**

Bergaran, 1.530; Arrasaten, 400 bat eta Oñatin, beste horrenbeste. Ibarreko herri handienetan bakarrik egon gara.

**Zein da zaharrok gizarteari egin diezaiokezuen ekarpen garrantzitsuena?**

Gizartean presente egon behar garela argi dago. Eta gizarteko arazoetan parte hartu nahi badugu, hiru modutara egin dezakegu hori: batetik, pertsona nagusiei laguntza eskainita; bestetik, kultura arloan gure

## ZAHARRAK, GARATU GABEKO HERRIALDEETAN

**"Guretako arazoak direnak garatu bareko herrialdeetako zaharrendako pribilegioak dira. Esaterako, gehienak ez dira pentsiodunak eta osasun aldetik ere gabezia asko dituzte"**

## ZAHARRAK, HEDABIDEETAN

**"Aldizkariak edo egunkariak irakurtzen baditugu, konturatuko gara zaharrak ez garela ia agertu ere egiten eta, agertzen garenean, jarrera pasiboan agertzen garela gehienetan"**

## POPULAZIOA ZAHARTZEA

**"Hemendik 50 urtera, 60 urtetik gorakoak populazio osoaren %22 izango dira munduan. Eta Gipuzkoa munduko gizarte zaharrenetakoa da... Atera kontuak"**

## JAIOTZE-TASA

**"Erakunde publikoek benetako laguntzak eskaini beharko lituzkete jaiotze-tasa handitzeko, baina beste kontu batzuetan moduan, otsoa etxean ikusi arte ez dugu erantzuten"**



ENEKO AZKARATE

jakinduriaren berri emanda; eta azkenik, hainbat belaunaldiren arteko lankidetza bultzatuta. Erretiratuen etxeak *ghetto* itxiak izan dira orain arte, eta horrekin amaitu beharra dago. Ezin gaitezke egon egun osoa gure egoitzan sartuta, kalera irten behar gara eta beste adin batzuetakoekin harremanak bultzatu behar ditugu. Hezkuntza arloan, Haur Eskolatik hasita, gure esperientziaren berri eman behar dugu eskoletan. Hedabideen arloa ere landu nahi dugu, eta horretarako, zuon, hedabideetan lanean zabiltzatenon, laguntza behar dugu. Aldizkariak edo egunkariak irakurtzen baditugu, konturatuko gara zaharrak ez garela ia agertu ere egiten eta, agertzen garenean, jarrera pasiboan agertzen garela gehienetan. Hedabideek duten zaharren estereotipoa aldatu egin behar da eta, bestalde, hedabideetan gehiago agertu behar gara zaharrok.

**Baina zaharrok barneratuta daukazue diskurtso hori?**

Ez. Jeneralean, nahiko jarrera pasiboa izaten dugu; hori horrela da. Oso zaila izaten da jarrerak aldatzea, arazoekin arduratsuak diren talde txikien bidez aldatzen dira gauzak. "Nahiko lan egin dut bizitzan dagoeneko; orain, atseden hartzea tokatzen zait"; hori da gehienen diskurtsoa. Horri, baina, buelta eman behar diogu, besteak beste, osasunaren onerako delako. Bestalde, aldaketak dakarren onuraren berri eman behar diegu zaharrei, eta aldaketak egiteko moduak asmatu. Horretan dihardugu.

**Tomasa, noiztik San Joxepe elkarteko presidente?**

1996. urtean hasi nintzen erretiratuen egoitzara joaten. Artean, baina, sortu barik zegoen San Joxepe elkartea. 1997. urtean sortu genuen San Joxepe elkartea eta harrezkero presidente moduan jarraitzen dut. Aurten bukatuko dut agintaldia eta kargua lagako dut, beste zeregin batzuetan sartzeko. Gipuzkoako Nagusien Kontseiluan segituko dut eta Estatu mailakoan sartuko naiz. Ondorioz, Madrilera sarriago joaten hasi beharko naiz, hilean behin-edo.

**Zelako esperientzia bizi izan duzu San Joxepe elkartean?**

Oso pozgarria. Zuzendaritza batzordean oso jende ona eta lanerako gertu dagoena ibili da beti. Baina parte hartzea eta lanerako prestutasuna zuzendaritzara ez ezik, elkarte osora eta, oro har, zahar guztietara ere zabaldu behar dugu. Hortxe dugu erronka. Jendeak parte har dezan, egitasmo zehatzak bultzatu behar dira eta egitasmo horiek beste erakunde, elkarte edo adin talde batzuekin batera bultzatu eta garatu behar dira.

**Gizartea geroago eta zaharragoa da...**

Hurrengo 50 urteotan, gizartea erabat aldatuko da eta zaharrek geroago eta garrantzi edo pisu handiagoa izango dugula gizartean. 2050. urtean, 60 urtetik gorakoak populazio osoaren %22 izango dira munduan. Eta Gipuzkoa munduko gizarte zaharrenetakoa da… Atera kontuak.

**Eta hori ona ala txarra da?**

Errealitate gordina da. Nire ustez, askoz hobea da gizarte gaztea edukitzea, baina errealitatea bestelakoa da eta horrek erakusten digu, besteak beste, inmigrazioak gora egingo duela hurrengo urteotan ezinbestez, lan eskaintzari aurre egiteko kanpoko jendea beharko delako. Bestalde, jaiotze-tasa handitzeko politikak bultzatu beharko dira.

**Hori horrela da, baina uste duzu jaiotze-tasa bultzatzeko benetako politikak egiten direla?**

Neurri batzuk hartzen dira, baina ez dira nahikoa. Erakunde publikoek benetako laguntzak eskaini beharko lituzkete, baina beste kontu batzuetan moduan, otsoa etxean ikusi arte ez dugu erantzuten.

**Erretiratzeko adina luzatzearen gainean zer iritzi daukazu?**

Ez zait oso egokia iruditzen. Aukeran uztea edo erretiratzeko adin mugarik ez ipintzea, agian, ez litzateke txarra izango, baina ez dut uste jendea horren alde dagoenik. Jeneralean, erretiratzeko adin muga aurreratzearen aldekoak gehiago dira luzatzearen aldekoak baino, betiere, baldintza egokietan erretiratuz gero, jakina.



ENEKO AZKARATE

## "Zoritxarrez, zaharrok ez daukagu talde kontzientziarik"

**Zaharrak baztertuta zaudetela uste duzu?**

Baietz esango nuke. Horregatik, uste dut autoestimua, autopresentzia eta autogarapena bultzatzeko ariketak egin behar ditugula. Ezin gaitezke zain egon. Parte hartu eta irabazi egin behar dugu. Edozelan ere, zaharrok ez daukagu talde kontzientziarik. Horixe bera falta zaigu.

**Hala ere, presio talde garrantzitsua izan zaitezkete, ezta?**

Bai, bai, geroago eta gehiago izango bagara, eta geroago eta egoera hobean erretiratuko bagara, geroago eta garrantzi handiagoa izango dugu gizartean eta erabakitzeko ahalmen handiagoa izango dugu. Gizarte honetan, nortasuna ematen diguna lana da, eta lana galtzen dugun neurrian, badirudi nortasunik ez dugula. Bada, nortasuna berreskuratu beharra daukagu erretiratuok.

**Zuen indarra eragingarria izate aldera, zaharren alderdi politikoak bultzatzearen aldekoa zara?**

Gaitza da, baina etorkizunean, Udal Hauteskundeei begira, esate baterako, pertsona nagusien talde moduan aurkeztea interesgarria, logikoa eta bideragarria izan daiteke. Zaharrak ez marjinatzeko eta gizartean geroago eta parte hartze handiagoa izateko modua izan daiteke hori.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko apirilaren 26a

# Aloña Mendi, igoera bidean

## Aste bukaeran, eskubaloiko lehen maila nazionalera igotzeko fasea jokatuko da Oñatin

**Aloña Mendiko eskubaloi taldeak lehen maila nazionalera igotzeko fasea jokatuko du aste bukaeran Zubikoa kiroldegian. Txapeldunak igoera txartela eskuratuko du.**



JULEN IRIONDO

**Lehia handia izango den arren, Aloñak aukera paregabea izango du bere zaleen aurrean igoera ospatzeko.**

Oñatiarrekin batera, Aragoiko Lolin Almozara taldea, Errioxako Promorioja eta Nafarroako Txantrea taldeak izango dira lehian. Promorioja eta Txantrea euren multzoetako txapeldunak izan dira ligan. Aloña Mendik aurten ere denboraldi bikaina egin du. Joan den denboraldian baino sei puntu gehiago lortu arren, sailkapenean bigarren izan dira Txus Aranbururen mutilak. Barakaldo izan da txapelduna, Aloña baino puntu bat gehiagorekin.

Igoera lortzeko gogor egin beharko dute oñatiarrek. Gaur, egubakoitza, Promoriojaren aurka jokatuko dute, 19:45ean. Aurretik, nafarren eta aragoarren arteko partidua izango da. Zapatuan, Almozararen aurka jokatuko du Aloñak, 20:15ean, eta domekan, 12:00etan, azken partidua izango dute, Txantrearen aurka.

Aloñako Eneko González golegileak baliteke ez jokatzea, min hartuta dago-eta. Hala ere, oñatiarrak baikor dira lehen postua eskuratzeko. Jabier Etxeberria presidentearen hitzetan, "espero dugu kiroldegia txikitxo geratzea eta, zaleen laguntzarekin, lehen postua eskuratzea. Iaz, Coruñan, ezin izan genuen igoera lortu, eta aurten, ezin dugu hutsik egin".

EDU MENDIBIL

## Kirolabur

### MOTORRA/RAMÍREZ

Aitor Ramírez auto gidari oñatiarra bigarren sailkatu zen Espainiako Mendi Txapelketako lehenbiziko proban, Legítimo Ubrique Igoeran. BMW 320 ST autoarekin, bi txanda ofizialetan bigarren izan zen Ramírez, Roberto Méndez (Audi A4) Espainiako txapeldunaren atzetik, 10 segundo eta 75 ehunenekora.

### FUTBOLA/DERBIA

Domekan, preferente mailako Aloña Mendi eta Aretxabaleta futbol taldeen arteko partidua izango da Azkoagainen, 16:30ean. Oñatiarrak sasoi betean daude azken jardunaldietan, eta joan den aste bukaeran 0-1 irabazi zioten Beti Ona taldeari. Aretxabaletak, berriz, galdu egin zuen, etxean, Bergararen aurka (1-2). Bergararrek Lagun Onak taldea hartuko dute zapatuan Agorrosinen, 16:30ean.

### ESKUBALOIA/BERGARA

Bergarako senior taldeak Deustu Loiolaren aurka jokatuko du zapatuan Labegaraietako kiroldegian, 17:45ean. Bigarren maila nazionalera igotzeko ligaxkan, lehen itzuleran, bi partidu galdu dituzte bergararrek, Deustu Loiola eta Sestao taldeen kontra, hain justu ere.

## Debagoieneko Kirol Zerbitzuen berriak

# Uda kirol kanpaina

● Umeak
▲ Gazteak
■ Helduak

| | ANTZUOLA 943 76 62 46 | ARETXABALETA 943 71 26 28 | ARRASATE 943 77 16 77 | BERGARA 943 77 91 67 | ELGETA 943 76 80 22 | OÑATI 943 71 63 75 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Abentura kirola** | | | | ▲ ■ | | |
| **Aerobica** | | ▲ ■ | ▲ ■ | ● ▲ ■ | ● ▲ ■ | ▲ ■ |
| **Aqua-Gym** | | | ■ | | | ▲ ■ |
| **Arku tiraketa** | | | ● ▲ ■ | | | |
| **Badminton** | | ▲ ■ | | | | ▲ |
| **Beisbola** | | | | | | ▲ |
| **Defentsa pertsonala** | | | | ▲ ■ | | |
| **Eskalada** | | ▲ ■ | ▲ | ▲ ■ | ● | ▲ ■ |
| **Golfa** | | ▲ ■ | | | | ▲ ■ |
| **Hockey patinetan** | | | | ▲ | | ▲ |
| **Igeriketa** | | ● ▲ ■ | | ● ▲ ■ | | ● ▲ ■ |
| **Mountain-bike** | | ▲ | ▲ | | ▲ ■ | ▲ |
| **Multikirola** | ● ▲ | ● ▲ | ● ▲ ■ | ● | | |
| **Natur jarduerak** | | ● ▲ | ● ▲ | | ▲ | |
| **Patinajea** | ● ▲ ■ | ● ▲ ■ | ● ▲ ■ | ▲ ■ | ▲ | ● ▲ ■ |
| **Pilota** | | ● ▲ | ● ▲ | ● ▲ | ● ▲ | ▲ |
| **Piraguismoa** | | | | ● ▲ ■ | ■ | |
| **Psikomotrizitatea** | | | | | ▲ | ▲ |
| **Squasha** | | | ● ▲ ■ | | | ▲ |
| **Tenisa** | ● ▲ ■ | ● ▲ ■ | ● ▲ ■ | ● ▲ ■ | | ● ▲ ■ |
| **Waterpoloa** | | | | | | ▲ |
| **1. Txanda** | 2002/06/24 - 2002/07/05 | 2002/06/27 - 2002/07/10 | 2002/06/27 - 2002/07/10 | 2002/06/24 - 2002/07/05 | 2002/07/01 - 2002/07/24 | 2002/06/24 - 2002/07/10 |
| **2. Txanda** | 2002/07/01 - 2002/07/12 | 2002/07/11 - 2002/07/24 | 2002/07/11 - 2002/07/24 | 2002/07/08 - 2002/07/19 | | 2002/07/11 - 2002/07/24 |

BABESLEA

VENTANAS
SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 • 20500 ARRASATE
Tel.: **943 79 78 10**
Ibargarai, 4 • 20570 BERGARA
Tel.: **943 76 12 21**


Zure lorategiak baditu
ipotx honek bakarrik
ezagutzen dituen sekretuak
urbina Garden
Zure lorategia altxor preziatu bihurtzeko, zatoz gurera. Landare, lorazaintzako lanabes eta ongarri mota ugari aurkituko dituzu bertan,
Bergarako Errepidea - Urbinako biribila - Legutio (Araba)
ORDUTEGIA:
Astelehenetik Larunbatera: 10:00-tik 20:00-ra
Igandea: 10:00-tik 14:00-ra
Landareei buruz izan dezakezun zalantza oro argitzeko prest gauzkazu.
945 40 34 23

# JALGI HADI DANTZARA

## 2002 BERGARA

## MAIATZAK 11



**11:00etan**
KALEJIRA

**13:00etan**
DANTZA IKUSKIZUNA

**14:30etan**
HERRI BAZKARIA

**18:00etatik 21:30etara**
ERROMERIA
ANSORREGI - LARRAÑAGA
ELORTZA ANAIAK
EPELDE - LARRAÑAGA
ZABALE - ALKORTA anai-arrebak
E. ITURBE - O. IRASTORZA
J.M. BELTRAN Albokaria
BERGARAKO TXISTULARIAK
PATXI ETA BATBIRU taldea

**DANTZALDIA**
23:00etatik 03:00etara
EZTANDA TRIKIZIO

*Antolatzaileak:*
EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA
Abarka Dantza Elkartea Bergara
Moises Azpiazu Dantza Taldea
Xamatz Dantza Taldea

*Laguntzaileak:*
Bergarako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco
kutxa zuri esker gracias a ti
Fundazioa Grupo Eroski Kontsumitzailearentzat
Viajes Eroski Bidaiak
Aldiri bi
FAGOR
ULMA
MultiOpticas Bergara • Arrasate • Ordizia Eibar • Errenteria
kiñu argazkilariak
BILTOKI
Auzo Lagun
ERKOP
NACEX Servicio Exprés
gara
DEIA
EL DIARIO VASCO
ARGIA
Goienkaria Debagoieneko Astekaria
Goitb Goiena Telebista
etb euskal telebista
euskadirratia
radioeuskadi
euskadigaztea

Goienka2a

Egubakoitza / 2002ko apirilaren 26a

Kultura eta aisialdia

Apirilaren 26tik maiatzaren 3ra




# GURASO ESKOLA

Gurasoak ere 'ikastetxera' joaten dira Debagoieneko hainbat herritan. Izan ere, geroago eta aita-ama gehiago joaten dira Guraso Eskoletara edo Guraso Lantegietara, nahiz eta ekimen hori orain dela urte dezente sortu zen ibarreko leku askotan: Arrasaten, Oñatin, Bergaran… Jardunaldi horiek adin guztietako umeen aita-amendako antolatzen dituzte, talde bakoitzaren beharrei eta kezkei erantzuna emateko. Gurasoek eurek agertzen dituzten ardura nagusiei kasu eginez, Udal Zerbitzuek eta tailerrak gidatzen dituzten adituek landu beharreko gaiak adosten eta antolatzen dituzte. Autoestimua, drogamenpekotasuna, komunikazioa, aisialdia eta estresa… Horiek eta beste hamaika gai izan dituzte hizpide Guraso Eskola horiek. Debagoieneko aita-amek euren papera geroago eta hobeto bete gura dute; ea, bada, eskola-lantegietan ikasitakoek horretara laguntzen dieten. /LEIRE KORTABARRIA

GOIO ARANA



## Aldape jatetxea

Iturriotz 41 / ARRASATE
943 79 70 41

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta

**Berezitasunak**
- Porruak arrautza-irinetan pasatuta.
- Orein solomoa aran saltsan.
- Arraina plantxan.

**Igandeetan itxita**






## Añai erretegia

Nardeaga 32 / ARAMAIO
945 44 51 01

**Eskaintza**
- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

**Berezitasunak**
- Bisigua parrillan
- Legatza
- Txuleta

**Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik**



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 150 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Ortzi erretegia

Angiozar auzoa / BERGARA
943 76 22 68

**Eskaintza**
- Eguneko menua eta karta
- Ezkontza eta jaunartzeak
- Enpresa bazkariak
- 120 lagunentzako jantokia

**Berezitasunak**
- Bildotsa burduntzian
- Arraina eta okela parrillan

**Astelehen iluntzea eta asteartetan itxita**



## Taberna-Berri jatetxea

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

**Eskaintza**
- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

**Berezitasunak**
- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada




## Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: Okela  eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandetan itxita**

**HEZKUNTZA/ GURASOENDAKO ESKOLAK ARRASATEN, OÑATIN, BERGARAN ETA ESKORIATZAN**

# Guraso izatea, ikasi beharreko lana

GURASO ESKOLAK EDO LANTEGIAK DAUDE ABIAN, AITA-AMEK EUREN KEZKAK ETA GALDERAK PLAZARATZEKO

**Dinamika, epe, garapen maila… desberdinak dituzte geurean Guraso Eskolek. Debagoieneko hainbat herritan antolatzen dituzte: Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Eskoriatzan. Bakoitzean, parte hartzaile kopuru eta maiztasun desberdinak, baina helburu berbera dute guztiek.**

Aita-ama bezala, seme-alabekin elkarbizitzan egunero sortzen diren kezkak plazaratzea, bestekin konpartitzea eta konparatzea eta, nola ez, arazoei erantzunak aurkitzea; hitz gutxitan esateko, guraso hobeak izaten ikastea. Hori da, oro har, Guraso Eskolen edo Lantegien helburua.

Guraso Eskoletan, aita-amek hainbat motatako laguntzak jasotzen dituzte. Alde batetik, antzeko adineko seme-alabak dituzten beste guraso batzuekin elkartzen dira, eta esperientziak elkartrukatzen dituzte. Bestetik, adituen -batik bat, psikologoen eta pedagogoen- aholkuak jasotzen dituzte; eta, azkenik, hainbat motatako materialaren inguruan lan egiten dute: filmak, artikuluak…



L.K.

Guraso Eskoletako parte hartzaile askok, ikastetxean baleude bezala, apunteak hartzen dituzte.

**DINAMIKA DESBERDINAK**

Helburu eta egitarau desberdinak jarraitzen dituzte Debagoieneko eskolok. Guztiak herri bakoitzeko udalak eta, kasu gehienetan, herriko ikastetxe guztiek antolatzen dituzte. Batzuetan, gurasoak umeen adinaren arabera sailkatzen dituzte taldeetan, eta egitarau finko bat jarraitzen dute, aditu baten edo baten baino gehiagoren gidaritzapean.

Beste batzuetan, parte hartzaileak ez dabiltza adituren baten aparteko orientabideen bila, baizik eta gura duten gauza bakarra "barrenak hustea" da, Eskoriatzako prebentzio teknikariak dioskun bezala. Berak antolatzen eta gidatzen du Eskoriatzako Guraso Eskola. Esperientzien elkartrukatzea eta arazoak besteei kontatzea da euren helburua.

Maiztasun desberdinarekin elkartzen dira herriaren arabera; batzuek astero izaten dute bilera; beste batzuek, ordea, hilero.

**KEZKA BERBERAK**

Dena dela, aita-amek dituzten kezkak eta, ondorioz, lantzen dituzten gaiak oso antzekoak edo berberak izaten dira kasu guztietan: opariak eta zigorrak, autoestimua, eskubideak, aisialdia eta estresa, komunikazioa, seme-alabekin hitz egiteko dauden zailtasunak, arauak ipintzea komenigarria edo kaltegarria den, drogomenpekotasuna…

Gai horiek guztiak gurasoek proposatzen dituzte, euren kezken arabera. Bestalde, talde txikiak izaten dira, eta arreta pertsonalizatua ere eskaintzen da hainbat kasutan.

LEIRE KORTABARRIA

## Motibazio handia

**Gaur egungo bizimodu lanpetuak ez dizkie Guraso Lantegietan parte hartu gura dutenei erraztasunak ipintzen; udal teknikarien esanetan, guraso askok "zailtasun ugari izaten dituzte askotan" horrelako ekintzetara joateko. "Hala ere, euren kezka eta ideiak elkarbanatzeko eta lantzeko aukera eskaintzen zaie", dio Arrasateko arduradunak, Jone Beitialarrangoitiak. Argi dago, beraz, guraso askori komenigarria iruditzen zaiela horrelako jardunaldietara joatea, eta iritzi hori berresten du Arrasateko teknikariak: "Oso garrantzitsua da seme-alaben heziketa osasuntsuan gurasoen heziketa. Gure seme-alaben etorkizun osasuntsurako, ezinbestekoa da gurasoen inplikazioa", dio Jonek.**

**Eta hori, inplikazioa, ez zaie falta, ez, Guraso Lantegietan dabiltzanei. Jonek, adibidez, ezin izan zuen joan den astean agertu, eta oraingoan, dinamizatzaileari joan den jardunaldian zer landu zuten galdetu dio iritsi bezain laster. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasle baten ama da, eta hasieratik sentitu zuen lantegian parte hartzeko motibazioa: "Kezka zehatzak baino, nire esperientziak beste aita-amekin elkartrukatu nahi nuen, eta besteei entzun", diosku Jonek. "Horrez gain, nire seme-alabekin harremanak zelan hobetu ikasi nahi nuen. Izan ere, entzun bai, baina askotan ez diegu kasurik egiten…", gaineratzen du.**

**Joneri "lagungarria" iruditu zaio eskolan ikasi duena. Iritzi berberekoak dira Mertxe eta Itziar, beste bi parte hartzaile. "Nerabezaroari dagokionez, gai guztiak iruditzen zaizkit interesgarriak", esaten du Mertxek. Eta Itziarrek honakoa gaineratzen du: "Elkarbizitzarako aholkuak eta orientabideak jaso ditugu. Seme-alabenganako harremanak hobetzeko ikasten dugun guztia da mesederako".**

**GARBIÑE ARRIZABALAGA** / HEZKUNTZA ORIENTATZAILEA

## *"Eskola horiek topagune ezin hobea dira gurasoendako"*

**Baikara hezkuntza zentroko aditua da Garbiñe Arrizabalaga. Bergaran eta Eskoriatzan udalek eta ikastetxeek antolatutako Guraso Eskoletan dabil lanean, dinamizatzaile moduan.**

**Zelan enfokatu da Guraso Eskola Bergaran eta Eskoriatzan?**

Bietan ere, hezkuntza eta gurasoen heziketa gaiak lantzen dihardugu, baina, batez ere, drogamenpekotasunarekiko prebentzioaren ikuspuntutik. Edukiak eta dinamika oso-oso antzekoak izan dira bi herrietan. Desberdintasun bakarra izan da Eskoriatzan haur eta lehen hezkuntzako umeen gurasoek osatzen zituztela taldeak; Bergaran, bigarren hezkuntzakoenak ere izan dira.

**Jardunaldiak bukatzear daude. Zein eduki landu dituzue?**

Edukiak bi arlotan banatu izan ditugu; batetik, aita-amei psikologia heziketa orokorra eman diegu, umeen adina kontuan hartuta. Gero, adinaren arabera, garrantzia handiena zuten gaiak aukeratu eta landu ditugu, aitaamen interesak kontuan hartuta. Adibidez, ume txikienen kasuan, aita-amen kezka nagusia zen umearekin zelan harremandu; lehen hezkuntzakoen gurasoek ikaskideak, lagunak, baloreak… landu gura zituzten; eta nagusienen kasuan, nerabezaroko arazoak. Aita-amek oso jarrera baikorra eta parte hartzailea izan dute.



Garbiñe Arrizabalaga.

**Zure ustez, zergatik da komenigarria era honetako jardunaldietan parte hartzea?**

Guraso izatea lan izugarria da, baina ez zaigu horretarako prestakuntzarik eskaintzen. Bestalde, eskola hauek topagune ezin hobea dira gurasoendako, guztiek dituztelako oso antzeko arazoak eta irrikak. Horrez gain, seme-alaben eskola hezkuntzan inplikatzen laguntzen die lantegiak, eta haien hezkuntza bideratzeko tresnak ematen zaizkie.

# Api.: 26–Mai.: 3

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ANTZERKIA

### ARETXABALETA

► ***Neska politan* lana** eskainiko du Kasketa Kabaretera taldeak gaur udaletxe zaharreko aretoan, 22:30ean.

### ARRASATE

► ***Ríe… soy un calavera* antzezlana** jokatuko du Juanlu Escuderok Iamai tabernan, gaur, 22:30ean.

► **Aktore irlandar batek bakarrizketa egingo du** gaur, egubakoitza, gaztetxean, 21:30ean.

► **Poesia musikatu saioa** eskainiko du El Corsal Desastre taldeak etzi, domeka, gaztetxean, 19:00etan.

► **Ipuina, poesia, argazkia, komikia, antzerkia eta bertsoak** uztartzen dituen muntaia izango da hilaren 3an Amaia Antzokian, 19:00.

### BERGARA

► ***Ni, ni neu naiz* antzezlana** eskainiko du Matxin komikoak domekan gaztetxean, 19:00etan.

► **Txotxongiloen Nazioarteko VI. Mostran,** *Pasionaria* lana eskainiko dute egubakoitzean, maiatzaren 3an, Novedades aretoan, 20:00etan. Bestalde, Arbolé kaleko antzerkiak emanaldia egingo du Espoloian, 19:00etan, eta Argentinako talde batek ere saioa eskainiko du Pol-Polen, 22:30.

► **Asier Bilbao transformistak** emanaldia egingo du maiatzaren 3an, Aralar tabernan, 23:30etik aurrera.

### OÑATI

► ***Marrubien printzesa* txotxongilo saioa** jokatuko du Gus taldeak etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 17:00etan eta 18:30ean.

► **Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen** saioa izango da bihar kiroldegian, 18:00etan, Txantxiku Ikastolak antolatuta.

## DEIAK

### ARAMAIO

► **Turkiako kartzeletako egoeraren gaineko** hitzaldia izango da apirilaren 26an kultura etxean, 20:00etan.

### ELGETA

► ***Xiberoa Garatzen* ekimenaren barruan,** Julita magoaren emanaldia izango da gaztetxean, 18:30ean. Segidan, Oskarbi aurrean, informazio mahaiak eta zozketarako txartel salmenta postua ipiniko dute. Zuberoan asteburua zozkatuko dute.

### OÑATI

► **Txantxiku Ikastolak 35. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu.** Bihar, zapatua, umeendako jolasparkea Santa Anan, erakusketa bat… izango dira. Bestalde, 1983ko abenduaren 31ra arte jaiotako ikasle ohien bazkaria izango da maiatzaren 4an. Txartelak honako lekuetan daude salgai: Txantxiku Ikastolan edo Aker, Garoa, Harripe eta Izarraitz tabernetan.

► **Joseba Arregi presoaren aldeko** ekintzak antolatu ditu Senideak taldeak apirilaren 27rako. 20:00etatik aurrera, omenaldia, manifestazioa eta bertsoafaria izango dira. Txartela Arranon erosi beharko da. Gaur da mugaeguna.

## MATRIKULAK

### ARRASATE

► **Udako udaleku programa abian jarri du Txatxilipurdik.** Leku mugatuak egongo dira, eta izena emateko azken eguna: ekainaren 18a. Horretarako, jo euren egoitzara, Pablo Uranga kaleko 6. zenbakira.

### BERGARA

► **Zabalik dago udako ludoteka irekietan** parte hartzeko matrikulazio epea. Maiatzaren 4ra arte egin ahal izango duzue, ludotekan: 10:00-13:00.

### OÑATI

► **Batxilergorako izena aurrez emateko epea zabaltzear dagoela eta,** Zuazola-Larraña Institutuak informazio bilera eta ate ireki jardunaldia antolatu ditu apirilaren 29rako, Larrañako ikastetxean, 18:30ean.

► **Zabalik dago uztaileko udaleku irekietan parte hartzeko** matrikulazio epea. Interesa dutenek etxera bidalitako orria bete beharko dute, eta Euskadiko Kutxan ordainketa egin.

## MUSIKA

### ARETXABALETA

► **Septicemia eta Storbais** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

### ARRASATE

► **Herf talde gasteiztarrak** musika elektroniko emanaldia egingo du Aterpe tabernan gaur, egubakoitza, 23:00etan.

► **Venereal Disease, R.A.S. eta Perros Deshidratados** taldeek *grindcore* kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

► **Goikobaluko Txiki eta Gazte taldeek eta Zarauzko talde batek** emanaldia egingo dute domekan San Frantzisko elizan, 13:15ean.

► **Bertsolari eta trikitilariekin kalejira** izango da maiatzaren 3an, 18:00etatik aurrera.

► **Bosniaren aldeko kontzertua** izango da maiatzaren 3an San Andres parrokian, 20:00etan.

### BERGARA

► **Kubako Marianao Musika Eskolarekin lankidetzan, hainbat talderen kontzertua** izango da gaur Jam aretoan, 21:00etan.

► **Chris Spedding-en eta Nuevo Catecismo Catolico-**ren kontzertua izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etatik aurrera.

► **Euskal Kantu Txapelketako Gipuzkoako finala** jokatuko da bihar, zapatua, Novedades aretoan, 19:00.

► **Sagarroi eta Eten** taldeen emanaldia izango da bihar, zapatua, hilak 27, gaztetxean, 22:30ean.

► **Rinoçerôse-ren eta DJ Pat Maori-**ren eskutik, rock dantzagarri kontzertua izango da martitzenean (hilak 30) Jam aretoan, 22:00etan.

► **Skatalities-en eta Issa Bagayo-**

**2 MONITORE**

Arrasateko Udalak, ANIMAZIO SOZIO KULTURALEKO 2 MONITORE kontratatu nahi ditu Iturbide Egoitzarako, aldi batez eta egun erdiz.

**Azterketak:** apirilaren 30ean goizeko 09:00etan Udaletxean

**Oinarriak**: Udaletxean edo web orrian *(www.arrasate-mondragon.net)* jaso daitezke.

ARRASATEKO UDALA

**Pertsonal Saila**



► MUSIKA

## OÑATIKO MUSIKARI GAZTEEN V. KONTZERTUA, ZAPATU HONETAN

Orain dela bost urte hainbat gazte oñatiarrek abian jarri zuten egitasmoak fruitu berria emango du asteburu honetan, apirilaren 27an: herriko musikari gazteen kontzertu berri bat. 1997.ean, hiru gazte oñatiar elkartu ziren eta urtero kontzertu bat antolatzea erabaki zuten, inongo taldetan sartuta ez zeuden musikari gazteek ere euren trebetasuna publikoaren aurrean erakutsi ahal izateko. Jendea bazegoela konturatuta, proiektua aurrera eraman zuten. Orduz geroztik, horretan jarraitzen dute. Aurtengoa bosgarrena dute, eta musika tresnak, kantua, dantza… eskainiko dituzte, urtetik urtera partaide eta eskaintza berriak sartu guran. Ibarreko musikazale guztiei hurbiltzeko deia egiten diete, ez baitira damutuko.

**Non:** Oñatiko Santa Ana antzokian. **Noiz:** Apirilaren 27an, zapatuan. **Ordua:** 19:15ean.

**IZARRAITZ INMOBILIARIA**

**HIPER EROSKI ZENTROA**
**Tel./Faxa : 943 79 98 60**
mondragon@izarraitz.com
**ARRASATE**
Zapatuetan egun osoan zabalik

**"VALLE DE TENA"**
**Bigarren eskuko etxebizitzetan eta obra berrietan aukera zabala**

**BIESCAS**
• Logela bi, komuna, egongela, sukaldea, trastelekua. Estreinatzeke. 83.540 € (13.900.000 Pta)

• Logela bat, komuna, sukalde-egongela, garajea eta trastelekua. Urbanizazioa berdeguneekin. 78.131 € (13.000.000 Pta)

**FORMIGAL**
• Logela bi, sukalde-egongela, komuna, eskiak gordetzeko lekua. Berriztatua eta jantzia. 93.156 € (15.500.000 Pta)

• Atikoa. Sukalde-egongela, komuna, eskiak gordetzeko lekua, berogailu indibiduala. Jantzia. 57.096 € (9.500.000 Pta)



## OSASUN MENTALAZ JARDUNALDIAK

Osasun Mentalaren gaineko jardunaldiak antolatu ditu Aguifes-ek, Gipuzkoako eri psikikoen senideen elkarteak. Maiatzaren 10ean izango dira, Donostian. Argibideetarako edo izena emateko, deitu 943 47 43 38ra edo idatzi *aguifes@teleline.es* helbide elektronikora.

**go**-ren emanaldia izango da maiatzaren 1ean Jam aretoan, 22:00etan.
► **Kevin-K**-ren emanaldia izango da maiatzaren 1ean gaztetxean: 20:00.

### ESKORIATZA
► **Oskorri taldeak** Pub Ibiltaria saioa eskainiko du maiatzaren 3an, kiroldegian, 22:30ean.

### OÑATI
► **Dani Pérez Trío** hirukoteak kontzertua eskainiko du maiatzaren 3an Santa Anan, 22:30ean.

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA
► **Balio pertsonalen lantegia** antolatu du Sadhana zentroak. Deitu 616 96 57 95 telefonora.
► **Txalaparta ikastaroa** izango da maiatz osoan barrena. Argibideetarako, jo Loramendi euskara elkartera.

### ARRASATE
► **Bioenergetika ikastaroa** antolatu du Arrasate yoga elkarteak. Izena emateko, deitu 616 96 57 95era.

## ERAKUSKETAK

### BERGARA
► ***Txotxongiloaren bidean*** izeneko erakusketa zabalduko du Conrado Massatik kultura etxean. Apirilaren 30etik maiatzaren 12ra bitartean izango duzue ikusteko aukera.

## LEHIAKETAK

### BERGARA
► **Gaztetxoen arteko II. Olinpiadak** antolatu ditu Jardunek. Argibideetarako edo izena emateko, jo euren egoitzara edo deitu 943 76 36 61 telefono zenbakira.

## JAIAK

### ARAMAIO
► **Sagardogileen Eguna** izango da etzi, domeka. 11:30etik aurrera, hainbat ospakizun eta ekintza izango dira herrian.
► **San Andres auzoko** jaiak hasiko dira maiatzaren 1ean.

### BERGARA
► **San Prudentzio jaiak** ospatuko dituzte Elorregi auzoan apirilaren 28an.
► **Labegaraietako jaiak** ospatuko dituzte apirilaren 27an, zapatuan, eta maiatzaren 1ean, eguaztenean.

# Zinema

### ARRASATE
■ **ALAI ZINEMA**

***La habitación del pánico***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

***Piedras***
Eguaztena: 17:00, 19:30, 22:30.
Eguena: 19:00, 21:30.

### BERGARA
■ **NOVEDADES**

***Gosford Park***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

***Hable con ella***
Martitzena: 22:30.
Eguaztena: 17:00, 19:30, 22:15.

### OÑATI
■ **SANTA ANA**

***Gosford Park***
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 22:30.
Astelehena eta eguaztena: 19:30.

***Nueve reinas***
Eguena, zinekluba: 20:00.

### EIBAR
■ **UNZAGA**

***Gosford Park***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***Blade II***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
■ **GURIDI**

***La habitación del pánico***
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Escalofrío***
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Blade II***
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Showtime***
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Aventuras en Alaska***
Egunero: 17:30.

***Hable con ella***
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 20:00, 22:30.
Zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.

***Ajuste de cuentas***
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Una mente maravillosa***
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***Los Tenenbaums***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatutik eguaztenera: 20:30, 22:30.

***Kate y Leopold***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Monster's ball***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

***Nunca juegues con extraños***
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatutik eguaztenera: 20:15, 22:45.

***Peter Pan***
Zapatutik eguaztenera: 16:30, 18:30.

***El rey Escorpión***
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatutik eguaztenera: 16:15, 18:15, 20:15, 22:45.

***Monstruos S.A.***
Zapatutik eguaztenera: 16:15, 18:15.

***Showtime***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Blade II***
Egunero: 17:3, 20:15, 22:45.

***Charlotte Gray***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Alí***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatutik eguaztenera: 16:30, 19:30, 22:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***El hombre que nunca estuvo allí***
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***El hijo de la novia***
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Alí***
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 18:00, 21:00.
Zapatua: 18:00, 21:00, 00:00.

***La marcha verde***
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Gosford Park***
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 22:30.
Zapatua: 22:30, 01:00.

***Los Tenenbaums***
Egunero: 12:30, 17:30, 20:00.

***Elling***
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 22:30.
Zapatua: 22:30, 01:00.

***El embrujo de Shangai***
Egunero: 12:30, 17:30, 20:00.

***Monster's ball***
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

■ **STER ZINEMAK**

***El rey Escorpión***
Egubakoitza: 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
Zapatua eta domeka: 12:20, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

***John Q.***
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 22:40, 01:00.

***Kate y Leopold***
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 17:25, 20:00, 22:35, 01:10.

***Una mente maravillosa***
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 19:45, 22:15, 00:45.

***La habitación del pánico***
Egubakoitza: 18:00, 20:25, 22:50, 01:15.
Zapatua eta domeka: 12:10, 15:35, 18:00, 20:25, 22:50, 01:15.

***Alí***
Egubakoitza: 17:30, 20:40, 00:00.
Zapatua eta domeka: 12:25, 17:30, 20:40, 00:00.

***Peter Pan***
Egubakoitza: 17:40, 19:10.
Zapatua eta domeka: 12:30, 16:00, 17:40, 19:10.

***Monstruos S.A.***
Egubakoitza: 17:50.
Zapatua eta domeka: 12:40, 15:55, 17:50.

***Nunca juegues con extraños***
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 22:15, 00:25.

***Blade II***
Egubakoitza: 17:35, 20:05, 22:35, 01:05.
Zapatua eta domeka: 12:15, 17:35, 20:05, 22:35, 01:05.

***Showtime***
Egubakoitza: 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Zapatua eta domeka: 12:05, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

***Aventuras en Alaska***
Egubakoitza: 18:15, 20:30.
Zapatua eta domeka: 12:35, 16:05, 18:15, 20:30.

***Astérix en América***
Zapatua eta domeka: 12:00, 15:30.

■ **YELMO CINEPLEX**

***No es otra estúpida película americana***
Egubakoitza: 16:05, 18:05, 20:25, 22:20, 00:05.
Zapatua: 12:25, 16:05, 18:05, 20:25, 22:20, 00:05.
Domeka: 12:25, 16:05, 18:05, 20:25, 22:20.

***La máquina del tiempo***
Egubakoitza: 15:55, 18:00, 20:30, 22:25, 00:20.
Zapatua: 11:45, 15:55, 18:00, 20:30, 22:25, 00:20.
Domeka: 11:45, 15:55, 18:00, 20:30, 22:25.

***Escalofrío***
Egubakoitza: 15:40, 17:35, 19:35, 21:40, 23:50.
Zapatua: 12:10, 15:40, 17:35, 19:35, 21:40, 23:50.
Domeka: 12:10, 15:40, 17:35, 19:35, 21:40.

***La habitación del pánico***
Egubakoitza: 15:35, 17:45, 20:10, 22:30, 00:45.
Zapatua: 12:05, 15:35, 17:45, 20:10, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:05, 15:35, 17:45, 20:10, 22:30.

***John Q.***
Egubakoitza: 15:30, 17:50, 20:05, 22:35, 00:55.
Zapatua: 11:35, 15:30, 17:50, 20:05, 22:35, 00:55.
Domeka: 11:35, 15:30, 17:50, 20:05, 22:35.

***Tanguy***
Egubakoitza: 15:35, 17:55, 20:00, 22:20, 00:30.
Zapatua: 12:20, 15:35, 17:55, 20:00, 22:20, 00:30.
Domeka: 12:20, 15:35, 17:55, 20:00, 22:20.

***Alí***
Egubakoitza: 15:20, 18:15, 21:15, 00:15.
Zapatua: 11:30, 15:20, 18:15, 21:15, 00:15.
Domeka: 11:30, 16:00, 19:00, 22:00.

***Ajuste de cuentas***
Egubakoitza: 16:10, 18:15, 20:10, 22:10, 00:10.
Zapatua: 12:15, 16:10, 18:15, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:15, 20:10, 22:10.

***E.T.***
Egubakoitza: 15:25, 17:55.
Zapatua eta domeka: 11:40, 15:25, 17:55.

***Monster's ball***
Egubakoitza eta zapatua: 21:30, 00:00.
Domeka: 21:30.

***Blade II***
Egubakoitza: 15:30, 17:50, 20:15, 22:35, 00:55.
Zapatua: 11:45, 15:30, 17:50, 20:15, 22:35, 00:55.
Domeka: 11:45, 15:30, 17:50, 20:15, 22:35.

***Showtime***
Egubakoitza: 16:15, 18:10, 20:15, 22:45, 00:50.
Zapatua: 12:30, 16:15, 18:10, 20:15, 22:45, 00:50.
Domeka: 12:30, 16:15, 18:10, 20:15, 22:45.

***Nunca juegues con extraños***
Egubakoitza: 16:00, 18:10, 20:20, 22:40, 00:40.
Zapatua: 11:50, 16:00, 18:10, 20:20, 22:40, 00:40.
Domeka: 11:50, 16:00, 18:10, 20:20, 22:40.

***El embrujo de Shangai***
Egubakoitza eta zapatua: 21:50, 00:25.
Domeka: 21:50.

***Peter Pan***
Egubakoitza: 15:50, 17:40.
Zapatua eta domeka: 11:55, 15:50, 17:40.

***El conde de Montecristo***
Egubakoitza eta zapatua: 19:25, 22:00, 00:35.
Domeka: 19:25, 22:00.

***Aventuras en Alaska***
Egubakoitza: 15:45, 17:45, 19:45.
Zapatua eta domeka: 12:00, 15:45, 17:45, 19:45.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Gosford Park:* ●●●●● / *Monstruos S.A.:* ●●●● / *Hable con ella:* ●●●● / *Una mente maravillosa:* ●●● /**

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### MONSTER´S BALL
PUNTUAZIOA: ●●●●

**ZUZENDARIA:** Marc Forster.
**AKTOREAK:** Billy Bob Thornton, Halle Berry, Heath Ledger.

Azken boladan Amerikateko Estatu Batuetatik hainbat film iritsi zaizkigu –*En la habitación* edo oraingoan berbagai dugun *Monster's Ball*–, Hollywoodeko *glamour*-etik eta aurrekontu handietatik oso urrun daudenak. Zinemagileek hiri handietatik ihes egiten dute toki askoz xumeago, baztertuago eta gordeagoetara. Film horietan gertatzen diren istorioak latzak eta lehorrak dira, eta oso egoera mugatuan dauden pertsonaiek gaur egungo Ameriketako Estatu Batuetako beste ikuspegi bat ematen digute.

Kutsu naturalista duen *Monster's Ball* Ameriketako Estatu Batuetako hegoaldean galdutako bazter baten kokatua dago, eta filmean agertzen diren pertsonaiak are galduago daude. Istorioa heriotza-zigorra jasan behar duen pertsonaia baten gainean da. Kartzelan lan egiten duten hiru belaunaldiz osatutako familiaren bizitza eta kondenatuaren familiaren bizitza ikusteko aukera izango dugu. Bi istorio paralelo horiek zoritxarreko gertakizun batzuen bitartez topo egingo dute. Billy Bob Thornton-ek (gaur egungo aktore onenetarikoa) eta Halle Berry-k (Oscarretan aktore onenaren saria eskuratu zuen) filmaren



pertsonaia nagusien rolak ezin hobeto interpretatzen dituzte. Biak bakartiak, atsekabetuak, gogo barik bizi diren eta amildegian mugitzen diren pertsonaiak dira. Munduan bizi diren mamuak dirudite. Bizitzak behin eta berriro kolpatutako gizakiak dira, baina azkenean zorigaitzak eta etsipenak bikotea elkartuko dute amodio istorio samur eta ederrean.

*Monster's Ball*-en lorpen aipagarriena zuzendariak lortzen duen tonua da. Minaz eta ezbeharrez betetako istorio izugarri hori oso modu lehor, labur eta gordinean kontatua dago. Oso gertaera narrasak eta dramatikoak sortzen dira eta horiek, gehiegikeria melodramatikoetan erori gabe ikustera ematekoko kontu handiz ibili behar da. Baina lortutako tonu osasungaitz eta hotzari, zuzendariak badaki bihozminetik sortutako amodio istorioari behar duen tonu sentibera eta intimua ematen. Esandakoaren adibide gisa, filmaren bukaerako eszena hunkigarri eta ederra har daiteke.

ANTONIO ZABALA

## AIPAGARRI

### Gerbasio Legorburu

ANTZUOLA



Zilarrezko domina eman dio Euskal Herriko Txistulari Elkarteak Gervasio Legorburu antzuolarrari. Joan zen domekan egin zuen elkarteak urteko batzar nagusia eta hantxe eman zuten erabaki horren berri. Domina emateko ekitaldia, baina, datorren urteko udaberrian egingo dute Antzuolan.

### Idoia Etxeberria

OÑATI



Idoia Etxeberriaren "Bakartxo" antzerki obra joan zen egubakoitz arratsaldean estreinatu zuten Zarautzen. Iaz, Zarauzko bakarrizketa dramatikoen lehiaketan saritua izan zen obra hori. Ainhoa Alberdi aktore zarauztarrak antzeztu zuen "Bakartxo", eta Patxi Santamaríak zuzendu du.

### Gurutze Mujika

ARETXABALETA



Aretxabaletako beasaindar honek irabazi du Bergarako Zenzenzaleek antolatzen duten kartel lehiaketa. Pazkuetako zezenketei begira urtero antolatzen dute zezenekin lotutako lehiaketa hori, eta 8 lan aurkeztu dituzte aurten. "Izuturik" izeneko lanarekin jaso du lehen saria Gurutzek.

## JAIOTAKOAK

**Xabier Jauregi Alkorta.** Antzuolan, apirilaren 10ean.
**Sergio Angulo Rubio.** Bergaran, apirilaren 12an.
**Xubane Garai Lazkano.** Aretxabaletan, apirilaren 12an.
**Unai Salillas Solaun.** Bergaran, apirilaren 13an.
**Maite Izeta Egaña.** Bergaran, apirilaren 13an.
**Irene Camacho Ballestero.** Oñatin, apirilaren 15ean.
**Julen Beitia Zubiagirre.** Oñatin, apirilaren 17an.
**Alejandro Martín Sotelo.** Arrasaten, apirilaren 18an.
**Asier Zeziaga Larrea.** Elgetan, apirilaren 18an.
**Leire Arietaleanizbeaskoa Toledo.** Bergaran, apirilaren 19an.
**Maite Caballero Nájera.** Arrasaten, apirilaren 20an.
**Unax Arregi Ballestero.** Oñatin, apirilaren 21ean.

## HILDAKOAK

**Isidro Manzano Madinabeitia.** Bergaran, apirilaren 17an. 75 urte.
**Federico Garitano Elkoroiribe.** Bergaran, apirilaren 19an. 77 urte.
**Angel Saizar Elkoroiribe.** Bergaran, apirilaren 20an. 84 urte.
**José Luis Miner Arrieta.** Bergaran, apirilaren 21ean. 40 urte.
**M.Pilar Izurrategi Ruiz de Azua.** Aretxabaletan, 22an. 87 urte.
**Hilaria Beiztegi Alzuaran.** Elgetan, apirilaren 22an. 95 urte.
**Antonio Bodes Espárrago.** Oñatin, apirilaren 23an. 47 urte.
**Pedro Zubia Elizburu.** Arrasaten, apirilaren 23an. 82 urte.



**Asier Zeziaga Larrea** elgetarra **Iratxe** izebarekin. Hilaren 18an jaio zen, eta 3,6 kilo pisatu zuen. **Pello**, donostiarra, eta **Miren Argi**, mondragoetarra, dira gurasoak.



**Julen Beitia Zubiagirre** eta **Jose Mari** aita, oñatiarrak biak. Apirilaren 17an jaio zen Julen, eta 3,380 kilo pisatu zuen. **Susana** da ama, oñatiarra.



**Amaia Alonso Albisua** eta **Belén** ama, bergararrak biak. Amaia apirilaren 22an jaio zen, eta 2,5 kilo pisatu zuen. **Manu** da aita, ordiziarra.



**Unax Sánchez Oncala** eta **Montse** ama, mondragoetarrak. Unax apirilaren 23an jaio zen, eta 4,060 kilo pisatu zuen. **Carlos** da aita, Matienakoa.



Bergarako Artiz baserriko **Pedro Iturrino Intxausti** eta **Andresa Uribarri Arriolak** eskoriatzarrak 50 urte beteko dituzte ezkonduta. 1952ko apirilaren 26an ezkondu ziren. Domekan, apirilaren 28an, ospatuko dituzte Andresak eta Pedrok **urrezko ezteiak**. Eskoriatzako Bolibar auzoko Mikel deunaren elizan meza entzun ostean, bazkari eder bat egingo dute senitartekoekin batera. **Zorionak**, bikote, familia osoaren partez!



Goienkaria
Eskelen prezioa:
60 €.
Goienkaria
+
Arrasate Irratia
75 €

ESKER ONA

Jose Luis
Miner Arrieta



**Bergara**n hil zen
2002ko apirilaren 21ean,
40 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Domingo
Biain Urzelay



**Oñati**n hil zen
2002ko apirilaren 14an,
73 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

**Ikuskizunak**

loramendi
euskera elkartea

***"Neska politan"***
KAFE ANTZERKIA / **KASKETA KABARETERA**
■ **Apirilak 26 (egubakoitza)** ■ **Gaueko 22:30etan** ■ **Udaletxe zaharrean**

***"Bitartean heldu eskutik"***
ERREZITALA / **KIRMEN URIBE**
■ **Maiatzak 10 (egubakoitza)** ■ **Gaueko 22:30etan** ■ **Udaletxe zaharrean**

ARRIETA & SAN MIGUEL
INMOBILIARIA-AGENTZIA
API

- **Urkulu inguruan BASERRIA salgai**
- **ETXEBIZITZAK Arrasaten**
  - Erdialdean. 112 $m^2$. Lau logela, komun bi, trastelekua, terraza bi. Kokapen ezin hobea.
  - Agerre kalean. 44 $m^2$. Logela bi. Guztia kanpoaldera. Guztiz berrituta.

Tel : 943 71 17 81 • Fax: 943 79 20 54
**Iturriotz kalea 23 • ARRASATE**
e-mail: inmo@arrietasanmiguel.com • **www.arrietasanmiguel.com**

## ASTEBUKAERAKO EGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

### ZAPATUA, 27

Aurreko astean hainbat egun eguzkitsu egin ondoren, okerrera doa eguraldia. Zapatua oso egun lainotsua izango dugu. Zeruak lainotuta egoteaz gain, euri txikia ere egingo du. Giroa hoztu egingo da; tenperatura jaitsi egingo da. Haizea, berriz, iparraldetik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Lainoak eta ostarteak.
**Errioxa:** Egun lainotsua.
**Pirinioak:** Egun lainotsua.

### DOMEKA, 28

Domeka ere oso egun lainotsua izango dugu, zapatuaren antzerakoa. Euri txikia egingo du, eta ekaitza ere egin dezake, mendialdean, bereziki. Tenperatura jaitsi egingo da berriro domekan. Haizea mendebaldetik ibiliko da, kostaldean barrualdean baino bortitzagoa.

**Nafarroako Erribera:** Egun eguzkitsua.
**Errioxa:** Lainoak eta ostarteak.
**Pirinioak:** Lainoak eta ostarteak.

### ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

**12,6º C**

### ILARGIAREN ALDIAK: APIRILA

| ilbehera | ilberri | ilgora | ilbete |
|---|---|---|---|
| 4 | 12 | 20 | 27 |

### EGUZKIA: APIRILAREN 28a

Sortu 07:06
Gorde 21:05

## URKULUKO URTEGIA

**Azkeneko asteko eguraldi eguzkitsuarekin, behera egin du Urkuluko ur mailak, gutxi baldin bada ere. Joan zen astean %73,22 zen ur maila. Oraingoan, berriz, %72,8.**

**% 72,8**

## ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

### MEZAK

**Astegunetan**
08:30, 12:00.
**Zapatuetan**
08:30, 12:00, 19:30.
**Domeka eta jaiegunetan**
09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**((112)) SOS DEIAK**

### OSASUNA / LARRIALDIAK

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrialdiak) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
